

IKASLEAK BIZIKLETAZ MODU SEGURUAN ETORRI AHAL IZATEKO ZABALGANA ESKOLAK HIGIKORTASUN OSASUNGARRI PROIEKTU BAT ABIAN JARTZEN DU

Lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen artean egindako inkesta batek adierazten du ikasleriaren %40a eskolara bizikletaz etortzeko prest dagoela. Egun %3a besterik ez da.

Proiektuak 5.000 €-ko aurrekontuaz hornitua dago. Diru honekin bizikletentzako 23 aparkaleku erosi eta jarri dira eta ikasleentzako 250 txaleko reflectante erosi dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 9a

“Amezti Txiki” CEIP ZABALGANA HLHI-ko Guraso Elkartetik zenbait hilabete daramagu gure **ikasleen artean higikortasun aktibo eta osasungarria bultzatzeko proiektu** batean lan egiten. Lanaren alde teorikoa burutu dugu eta gaurtik aurrera praktikan gauzatzen hasten da.

Bete beharreko lehen helburua **diagnostikoa** izan zen. Honen bidez jakin nahi genuen zeintzuk ziren ikasleak etxetik eskolara etortzeko zituzten higikortasun ohiturak.

Honetarako lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen artean 256 inkesta egin genituen.

Hauen analisia egin ondoren, honako datuok lortu genituen:

Ikaslegoaren %90a badu bizikleta edo/eta patinetea. %65a eskolara oinez dator, %32a kotxez eta soilik %3a bizikletaz dator.

Desplazamendurako modu ezberdinen balorazioei dagokienez, erantzunek haxe adierazi zuten:

- **Oinez:** Positiboki baloratzen da, lagunekin etortzeko aukera ematen duelako eta horrelakoetan dibertigarria da. Kontrako aspektuei dagokienez, eraman beharreko pisua dago, bidegurutze arriskutsuak eta heldu batek lagunduta joan behar izateaz.

- **Bizikletaz:** Dibertigarria eta azkarra denez positibo baloratzen da. Negatiboa dena: Aldapak, ibilbideak ez dira seguruak eta heldu batek lagunduta joan behar izateaz.

Lehentasunen aldetik: **Ikasleriaren %60ak, batez ere, oinez nahiago dute eta %40a bizikletaz edo bien konbinazioa.**

Diagnostiko honek erakutsi zigun **hazkuntzarako alde handia** bazegoela eskolan, higikortasuna bizikletaz edo patinetz bultzatzeko.

Horregatik , eskola komunitatea , Ingurugiroa gaietako ikastegia (CEA), Gasteizko bizikleteroak elkarteak , Osakidetza eta "Zabalgana Batuz" auzo elkartearen laguntzarekin proiektu hau aurrera eramanez nahi izan dugu. Proiektu honek eskolara joateko mugikortasun osasungarria bultzatzen du, osasunerako ariketa fisikoaren onurak eta gure ingurugiroaren zaintzaren garrantzia azpimarratuz.

Bizikletaz, oinez zein patinez gure seme-alabak etxetik eskolara eguneroko joan-etorriak modu seguruan egiteko arriskurik gutxiko bide batzuk aukeratu ditugu.

Proiektuen abantailak honako hauek dira:

- Gure seme-alaben autonomia handitu.
- Eskola inguruan kotxeak gutxitu.
- Lagun taldearekin eskolara etorri ahal izan.
- Osasun eta ingurugiroarako onurak azpimarratu

"Mugikortasun Osasungarria" taldeak burutu dituen ekintzen artean azpimarragarrienak hauek dira:

- 23 aparkabizikleta jarri dira eskolako eremuan.
- Bizikletaren erabilpenari buruzko formazioa ikasleentzako.
- 3. Mailatik aurrera ikasleei txalekoen banaketa. Irakasleen eskura ere 60 txaleko jarri dira.
- Eskolako familien artean 1.500 triptiko informatiboak eta ibilbide seguruaren mapak .

Proiektu honen kostua 5.000 eurokoa da; Hauetatik Guraso Elkarteak 2.800 euro jarri ditu, Eskolak 300 euro eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza 2.200 eurokoa izan da.

Azkenik azpimarratu nahi dugu proiektu honetarako egin diren gastu eta erosketa guztiak bertako enpresetan egin direla hiriko komertzioa bultzatuz.